

**26 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu horretarako 2019an****DAGOENKO 845 SALTOKI BIRMOLDATU DITU  
EROSKI-K BERE SARE KOMERTZIALEAN**

- 2019an, beste 197 denda birmoldatu ditu, eta, hala, elikagaien arloan dituen saltokien %64 birmoldatzeraino iritsi da
- Iaz, salmenten %80 birmoldaturiko sarean izan ziren
- Birmoldaturiko dendetan, %15 igo da produktu saila, batez ere freskoetan eta ekologikoetan
- Kooperatiba lanean ari da tokiko 10.000 hornitzaileekin, eta 4.500 milioi euro ingururen erosketak egiten dizkie urtero

Elorrio, 2020ko ekainaren 10a.- [EROSKI](#) ari da Zurekin eredura aldatzen bere sare komertziala, zeinaren berezitasuna baita belaunaldi berriko denda; hala, jadanik 845 denda eraldatu ditu. 2019ko ekitaldian beste 197 dendatara zabaldu du eraldaketa, eta 26 milioi eurotik gora inbertitu du horretarako. Hala, hipermerkatuen ta supermerkatuen —propio nahiz frankiziatuen— %64raino eraldatu ditu, denak ere EROSKI, EROSKI City, EROSKI Center eta CAPRABO erako saltokiak.

Iaz, salmenten %80 birmoldaturiko sare komertzialean izan ziren. Urte hauetan, EROSKIk bultzada indartsua eman dio Zurekin eredu komertzial berriari, zeinaren ardatza baita bezeroei tratu pertsonalizatuagoa ematea, apustu handia egitea tokiko produktuen eta sasoiko elikagai freskoen alde, elikadura osasungarria sustatzea eta aurrezteko modu berriak eskaintzea eguneroko erosketetan.

Birmoldaturiko dendetan %15 igo da produktuen eskaintza. Eraldaketa gauzatzeko orduan, batez ere freskoen atalean jarri dute ardatza; erabat berri dute freskoen eremua, balioa emateko produktu sorta zabalari, eta, oro har, tokiko eta sasoiko janariaren aldeko apustua indartu da. "*Gure saltokiak beren inguruan ekoizten diren jangaiak merkaturatzeko plataforma irekiak dira. Kontsumitzaileari modu eskuragarrian jartzen dizkiogu bere eskualdeko elikagaiak, geure eguneroko ohituretan txertatzeko, eta aldi berean, ekoizpen ehuna askotarikoa duen nekazaritzako elikagaien sektorea indartzen dugu, funtsezkoa baita haren iraunkortasunerako eta ekonomiari, kulturari, eta gure ingurunearen ingurumen kalitateari ekarpena egiteko*", azaldu du EROSKIren Sare Komertzialeko zuzendari nagusiak, Rosa Carabelek.

Produktu dietetiko eta biologikoen eremua ere handitu egin da eraldaturiko dendetan; hala, gaur egungo elikadura joera guztiak biltzen dituzten gunek jarri dira. Gainera, atal horretan, produktu espezifikoko sorta zabal bat dago, elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta gatz gutxi

**EROSKI**

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa

Tel.: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)**EROSKI - PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)

jan behar dutenentzat. Horretaz gainera, lurrindegri-parafarmaziaren atal berriak ere lehen baino toki handiagoa hartzen du, eta prestakuntza berezia duen pertsona bat egongo da bezeroari zainketa pertsonalerako arreta osoa eskaintzeko.

Era berean, saltokiak eraldatzearekin, sorta ere zabaldu egin da; batik bat, olioetan, pastetan, txokolateetan, kafeetan, teetan, infusioetan eta zainketa pertsonalerako produktuetan. Horrela, kontsumitzaileen aukera askatasuna handitzen da, eta bezeroek beren egiazko premiak bete ahal dituzte. Kooperatiba lanean ari da tokian tokiko 10.000 hornitzaile ingururekin, eta 4.500 milioi euro inguruko erosketak egiten dizkie.

EROSKIren belaunaldi berriko dende berrikuntza teknologikoak ekartzen dituzte efizientzia energetikoa hobetzeko eta ingurumen eragina gutxitzeko; eta, gainera, leku bakoitzaren berezitasunak zaintzen dituzte. Berrikuntza horiek, saltokiaren diseinu klimatikoan eta hotzaren instalazioetan ikusten dira, baita argiztapen sistemetan ere, eta, horrekin batera, hondakinak gutxitu dira.

---

**EROSKI**

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa

Tel.: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)**EROSKI - PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)